

DEFINIZIOA

Modu INDEPENDENTEAN jokatu, eta emaitza eraginkorrak erdiestea, **BALIABIDE PERTSONALAK** baliatuz.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



AINTZANEK ingeleseko maila hobetu nahi du, eta horretarako Londres aiatuko da, eskolak amaitu bezain laster, uda lanean eta hizkuntza hobetzen emateko. Senitartekoak jakinaren gainean jarri ditu:

-Aintzane: Ama, aita, uda Londresen ematea erabaki dut, ostalaritzan lan eginez eta hizkuntza ikasiz.

-Ama: Ongi iruditzen zait, baina... non biziko zara, eta ... jatekoa....

-Aintzane: Ez kezkatu.

-Aita: Niri ere ondo iruditzen zait. Etxebizitzari dagokionez, Mirenek, nire lankide batek, Londresen neba bizi du, eta logelak errentan ematen ditu. Bihar bertan egingo dut berarekin berba.

-Ama: Bai ongi, aita! horrela neskatoa jende ezagunarekin egongo da!. Eta zuk, Aintzane, ez duzu zertan lan egin. Ikastearekin nahikoa da.

-Aintzane: Ez zaitezte kezkatu, dena antolatua daukat-eta. Unibertsitatean ostatua eta lana emateaz arduratuko den enpresa bat gomendatu didate. Akademiari dagokionez, oraindik ez dut erabakirik hartu... hiru erreferentzia ditut, oso ikastegi eta akademia interesgarriak.

Enplegua



MIKELe ikuskatzaileari esan dio, Bartzelonan interes handiko jardunaldi profesional bat izango dela, eta bere ustez, biok joan beharko luketela bertara, departamentua hobetzeko. Ez duela joaterik erantzun dio, baina ongi deritzola bera joateari. Bidaia eta ostatua antolatu, eta joan egin da. Itzulitakoan, hango gaiak hausnartu eta gero, zerbitzua hobetzeko proposamen-txostena idaztea erabaki du.

Beste
alor batzuk



MARCOSek errenta aitortpena aurkezteko unea iritsi denean, Aldundiko Ogasun Departamentuan hitzordua eskatu du, tramiteak bizkortu eta kitapena kobratzeko. Aurretik udalera, bankuetara eta informazio guztia eskatu eta biltzeko aholkatzen dioten pertsonengana jo du. Hitzordua baino egun batzuk lehenago dena prest dauka, eta diru-sarrera 15 egunetan egin diote.

GOGOAN
IZAN

- Besteen LAGUNTZA IZATEAK on egingo dizu, baita haiekin lan egin eta harremanak izateak ere, EZ, ordea, haien MENPEAN EGOTEAK, zure erabakiak, zure interesak haien eskutan geratzeko arriskua bailegoke.
- Menpekotasunak egoeren kontrola besteren ESKU UZTEA dakar, eta horrek abantailak ditu baina baita eragozpenak ere.



Fondo Social Europeo
Europako Gizaite Fonda

inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Erakunde Autonomia
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO